

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko ekainak 19 · 1401 zenbakia



**SAN
JUANAK
KOLOREZ
BLAI**

EUKI

LAN, LEGE ETA ZERGA AHOLKULARITZA

www.euki.com 943 20 42 91

Sanjuan zoriontsuak





BISTA·EDER

Hortz Klinika · Clínica Dental



**SAN JUANETAN,
DISTIRA EGIN
IRRIBARRE BATEKIN**

Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTuben ikusgai



www.etakitto.eu



San Juan jaietarako hainbat eguneko egitaraua prestatu du Jaixak Herrixak Herrixandako plataformak. Gaurtik aurrera txosnagunea martxan egongo da eta ekintza ugari egingo dituzte hilaren 24ra arte. Noski, horren atzean lan handia dago eta hortaz jardun dugu eurekin.

eta kitto!
euskarako elkarteak

ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruene Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruene Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Iruene Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



(*...eta kitto! k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Eibarko Udala euskaraz lan eta bizi, epai euskarafoborik ez!

Euskararen kontrako oldarraldiak ez du etenik. Eibar-ko Udaleko epai euskarafobia izan da azkena. Honen arabera, justiziaren aurkakoa da herritarren eskubideak parekatzea eta udaltzaingoan eman den enplegu publikoko eskaintza atzera botatzen du euskara eskakizuna dutelako. Gainera, epaileak agenteek barruko lanak ere egiten dituztela argudiatuta, euskara eskakizuna salbuetsi eta euskaraz lan egiteko eskubidea ere urratzen da. ELAk administrazioa euskalduntzeko proposamen zehatzak mahai gainean jarri baditu ere, Eibarko Udalak ez du plan eraginkorrik martxan jarri, eta bide horretan jardun beharko luke.

Hego Euskal Herriko administrazioak eratu zirela 40 urte igarota, sektore publikoko langileek eta herritarrek ez dute hautazko hizkuntzan zerbitzua bermaturik; gaztelaniazko zerbitzua soilik bermatzen da. Egun indarrean dagoen araudiarekin langile eta herritar euskaldunak bigarren mailako herritarrak dira. ELAren iritziz, bada garaia bi hizkuntzek estatus juridiko bera izan dezaten eta euskarak gaztelaniaren menpeko hizkuntza izateari utz diezaion. Espainiako epaitegi eta sindikatuak nahiz alderdi politikoak oldarraldi betean ari dira euskara bigarren mailako hizkuntza izan dadin eta gaztelaniaren inposaketa normalizatzeko. Hizkuntza eskubideak lanarekin kontrajarriak balira bezala argudiatzen dute.

ELA Euskal Sindikatua

Hortik esanak



Hitz asko erabil nitzake, baina suntsitzaile da berba egokia, nire ustez. Suizidio bat bi modutara jazo daiteke: batzuetan, afera isila da; bere buruaz beste egiten duenak ez du horren zantzurik erakusten, dela inguruak ez duela-ko jakin ikusten, dela ez dutelako horren seinalerik eman, suizidio batzuk gauza inpultsiboa baitira, momentukoa. Beste batzuetan, berriz, badaude horren zantzuak, beren buruaz beste egiteko gogoa iragartzen duten jokabideak, baita suizidio saiakerak ere. Askotan uste dugu saiakerak larrialdietara iristen direnak direla, baina esango nuke norbere buruaz beste egiteko saiakera asko ez direla osasun zerbitzuetara iristen, eta inork ere ez duela sekula haien berri.

CRISTINA BLANCO, Aidatu elkarteko presidentea

Toki batean kontrol bat egin badizute, hortik pasatzeaz iri uzten diozu. Emakume etnografo feministei esker, badakigu emakumeok bizi izandakoagatik ikasten dugula hiria, baina baita amek, lehengusinek, lagunek kontatzen digutenaren bitartez ere. Argirik gabeko lekuak saihesten ditugu, beldur objektiboengatik edo irudimen partekatuengatik. Hautemandako generoa maparen barruan dugun iruditeria zehazten duen beste faktore bat gehiago da. Arrazializatutako pertsonen kasuan, Espainian, nortasun-kontrol diskriminatzaileek mugatzen dute beren hiriko mapa.

LAURA ESCUDERO ZABALA, antropologian doktorea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

POTXOLOKA. → Kanika-jokoa. Esaterakoan, azentua lehenengo silaban daroia. “Eskolatik urten eta potxoloka egitten genduan frontoi ostian”.

POTXOR. → Alua. “Hanka zabalik potxorra bistan zeguan”.

POTXORROSKILLAK. → Bete ezineko eskaera bati ezezko biribila emateko. “-Hi emoidak milla pezetakua bixar itxuliko deuat eta. -Milla pezetakua? potxorroskillak!”.

1967

Eibarko Musika Banda, Untzagako musika kioskoan

Argazkia urte horretako ekainaren 18an egindakoa da. Ezkerretik hasita, Alberdi, Marcelino Barrutia, Jacinto Zuluaga (Zuzendaria), Lucio Bengoa (Zuzendariordea) eta Julio Lapeyra ikusten dira

FOTO PLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 19
EGUNEZ Zulueta (San Agustin 5)
ZAPATUA 20
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
DOMEKA 21
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 22
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 23
EGUNEZ Barandela (Ziriako Agirre, 4)
EGUAZTENA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUENA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
BARIXAKUA 26
EGUNEZ Elortza (Juan Gisasola, 18)
BARIXAKUA 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
BARIXAKUA 28
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 29
EGUNEZ Zulueta (San Agustin 5)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Fernando Gastañazatorre Onagoitia**. 83 urte. 2026-06-11.
- **Matilde Etxebarria Valdivieso**. 97 urte. 2026-06-13.
- **Mila Arizmendi Etxaniz**. 2026-06-13.
- **Julio Jaen Moral**. 92 urte. 2026-06-14.
- **Carmen Lopez Alcobilla**. 96 urte. 2026-06-14.
- **Jose Manuel Perez Balboa "Sandokan"**. 76 urte. 2026-06-14.
- **Maria Jesus Iriondo Barrena**. 91 urte. 2026-06-16.
- **Nerea Garitagoitia Baskaran**. 68 urte. 2026-06-16.
- **Juan Francisco Ortuoste Alberdi "Juanito"**. 87 urte. 2026-06-17.



Parrokiako koruak Karmelitetan abestuko du ekainaren 23an eta 24an

S.H. Parrokiako abesbatzak bi hitzordu garrantzitsu dauzka aurretik: San Juan bezperan, 19:00etan hasita, koruak Salbea eta San Juan Himnoa interpretatuko ditu. Eta San Juan egunean, 12:00etako mezan kantatuko du abesbatzak. Ekitaldi biak Karmengo parrokiaren izongo dira.



Sorbak bedeinkatzeko meza Azitainen

S.H. Sorbak bedeinkatzeko meza ospatuko dute Azitaingo elizan, San Juan egunean, 10:30ean. Ohiturari jarraituta, "bedeinkatutako sorbak etxe eta baserrietako ateetan ipintzen dira, hurrengo urteko San Juan bezperako suan erre arte. Udaren hasieran bedeinkatzen ditugun sorbek baserri eta naturarekin daukagun lotura gogoratzen digute eta, fededunok, euren gandik jasotzen dugunarengatik eskerrak eman eta zaintzeko konpromisoa hartzen dugu horrela".

Kalean puntua egiten, emakumeen aurkako indarkeria salatuz

S.H. Puntuaren eta kakorraz-lanaren nazioarteko eguna ospatzeko ekitaldia egin zen Untzagan zapatuan, Altxo alargunen elkartearen eskutik. Urtero antolatzen den ekimenarekin emakumeen aurkako indarkeria ikusaraztea da helburua.



LEGE AHOLKULARITZA / AUDITORIA

Gaurve

Tfnua. 943 202 461 Faxa. 943 201 125
 Fermin Calbeton, 13-15 www.gaurve.es

BOSARK
 ARKITEKTOAK

Sostoatarren, 3 EIBAR 943 12 06 93
 info@bosark.com

gestilan
 GOSEREN

Zezenbide 4 - behea
 Tel. 943 20 70 02 gestilan@gestilan.es
 Faxa. 943 20 87 92 www.gestilan.es

943 20 17 33
 eibarbus@eibarbus.com
 www.eibarbus.com

Betidanik esku onetan!

Isasi, 20

Eibarbus



1956an jaiotako en urteroko bazkaria

S.H. Aurreko asteburuan, zapatuan egin zuten bazkaria aurten 70 urte bete edo beteko dituztenek. Esan digutenez, elkartzan diren bakoitzean hain ondo pasatzen dute, hitzordua urtero errepikatzen dutela.

Debarrenen Esperientzia Eskolarako matrikulazioa zabaldu dute

S.H. Ikasten Elkarrekin antolatzen duen Debarrenen Esperientzia Eskolan matrikula egiteko epea aste honetan zabaldu dute. Azaldu dutenez, "55 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago, eta bertan formazioa eta parte-hartzea izango ditugu ardatz. Ikasturtea urriaren 23an hasiko da, eta astean hirutan, martitzen, eguazten eta eguenetan izango dugu klasea, goizez". Urriaren 16ra arte egin daiteke matrikula, Pegoran. Informazio gehiago 695 788 936 telefonora deituta.



Jendetza elkartu zen Mila Arizmendiri azken agurra egiteko ekitaldian

S.H. Erreal Plazia txiki geratu zen astelehenean, asko izan baitziren ekainaren 13an hil zen Mila Arizmendi Etxaniz agurtzera gerturatutakoak. Ezkerreko militante abertzale, sozialista eta feminista, era guztietako herri-mugimenduekin konprometitu eman zuten bizitza osoa, azken egunera arte. Eibarko Udalean zinegotzi kargua bete zuten Herri Batasunarekin, eta Juan Antonio Mogel ikastolako bulegoan aritu zen beharrez. Goian bego.



Gerritek
INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

Neurrira egindako software-aren garapena

Marka guztietako zerbitzu tekniko eta salmenta





Jai zoriontsuak!

SOUL
estilistak

Erreal, 20
www.peluqueriasoul.com
943 567 232



Eibarko Txistu Eguna ospatuko da domekan, bosgarrenez

S.H. Domekan, ekainaren 21ean ospatuko da V. Eibarko Txistu Eguna, sanjuanetako jai-egitarauaren barruan. Usartza Txistulari Taldeak Udalaren laguntzarekin antolatu duen ekitaldiak Elgoibar, Ermua, Zornotza, Gasteiz (Abetxuko), Soraluze eta Eibarko txistulari taldeak bilduko ditu, eta egitaraua 11:00etan hasiko da, talde guztiei harrera eginda. Jarraian, auzoetan kalejiran ibiliko dira, taldeka, eta 12:30ean Untzagan elkartuko dira denak, herriko erdialdean elkarrekin kalejira egiteko. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitrixa eta pandero talde batek lagunduko die, Unai Cabanzon eta Danel Montero tronpetekin batera. Usartza taldearekin batera, Musika Eskolako txistu ikasleak ere arituko dira domekako jaialdian.



Ekainaren 26an aurkeztuko dute Amañako Jaietarako prestatu duten egitaraua

S.H. Sanjuanak pasatu eta jarraian, ekainaren 26an aurkeztuko dituzte Amañako Jaiak, 13:30ean Amañako Laboral Kutxan. Jaiak uztailaren 3an (barixakua) hasiko dira, 19:00etan Iñaki Perurena harrijasotzaileak botako duen txupinazoarekin. Egun horretan izango dira umeen danborrada eta kontzertuak, Mugi Panderoa, Def con Dos eta Reincidentes taldeen eskutik. Zapatuan (uztailak 4), besteak beste, herri-bazkaria, Pirritx Porrotx eta Marimotots pailazoan ikuskizuna (17:45), nagusien danborrada (19:15), parrillada eta Skapale elektrotxaranga (20:30) eta berbena, Lisker taldearekin izango dira. Eta domekan (uztailak 5) haurrendako puzgarriak eta jolasak, Imperial de Guajuato mariatxiaren kalejira eta kontzertua (17:30) eta berbena, besteak beste. Jaiak jarraipena izango du hurrengo asteburuan, uztailaren 10ean eta 11n, barixakuan izango den jubilatuen bazkariarekin eta zapatuko bertso-afariarekin.



BANATZAILEAK BEHAR DIRA

..eta kitto! aldizkaria Eibarren banatzeko

- Ostiraletan (6 ordu)
- 11:00-18:00 bitartean
- Urte osoko kontratua

Interesa baduzu, jarri gurekin harremanetan:
943 20 09 18 | banaketa@etakitto.eus

BOXEO JAIALDIA

ARGAZKIAK: EIBARKO UDALA



Barixaku gauean hartu zuen Astelena frontoiak urtero sanjuanak baino lehen egiten den boxeo eta wushu jaialdia. Ttatt gimnasioko Montxo Quinak antolatutako Amañako Tigrea Oroigarriaren hirugarren edizioa izan da aurtengoa.



Matsariako
Industriagunea,
34 - 2. 1C

943 82 06 96

Ondo pasa
Sanjuanetan!



LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera

LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

BREAKING EIBAR



ARGAZKIAK: EIBARKO UDALA



Zapatuan estatuko zein nazioarteko break dantzariak elkartu ziren Untzagan, Breaking Eibar txapelketaren 11. edizioan. Aurten ere, edozein ahoa bete hortz lagatzeko moduko ikuskizuna eskaini zuten dantzariak.



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Cárnicería
autorizada

Bidebarrieta, 20
Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetan
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
943 20 16 69



FUTBOL 7 TXAPELKETA

Ederto ibili ziren zapatuan Unben jokatu zen kuadrillen arteko futbol 7 txapelketa. Aurtengo txapeliduna +30 taldea izan da.



LOS 40 PRINCIPALES



Jendez gainezka egin zuen Untzaga plazak zapatu gauean, eta bertan zeuden gazte guztiak dantzan jarri zituen Jesus Taltavull DJ-ak, 'LOS40 Sessions Eibar' bere musika-saioaren erritmora.



LauKolan
SOLUCIONES INFORMÁTICAS

Tel. 943 120 350 Faxa. 943 127 087
Urkizu Pascalekua, 10

astixá

Zezenbide 7, Eibar 20600 Gipuzkoa tlf.943206231

EGITARAUA



19 BARIKAKUA

20:00 Coliseo antzokia

BALLET EIBARRES dantza-taldearen emanaldia. (Sarrera: 3 €)

22:00 Untzaga plaza, kontzertua

MAIALEN IBARRA eta **KAPARRAK** taldea.

00:45-05:00 Untzaga plaza

EMEKA (kontzertua) eta **SOBA** (DJ emanaldia)

20 ZAPATUA

09:30 - 20:30 Errebal plaza

JOKOEN SIMULAZIO TAILERRA (modelismoa, mahai jokoak,..)

12:30 Coliseo antzokia

Untzagako Jubilatuen Etxeko koruaren emanaldia

19:00 Anbulatorioko plazatik, kalejira **AFRICA BAJ YAY** taldea

22:00 Untzaga plaza, kontzertua

JONKASS ETA LEIRE MARTÍNEZ

23:00 - 02:00 Untzaga, **Testing Programa, AI LAKET**

00:45 Untzaga, **SAN JUAN DJ FEST**

CAPI Bidebarrieta, 5 943 201 547
www.capiestetica.es

AURPEGI TRATAMENDUAK

Azalaren diagnostiko zehatza

Skin-touch

GORPUTZ TRATAMENDUAK

Gorputzaren birmoldaketarako behin-betiko konponbidea:

- IZTERRAK
- IPUR-MASAILAK
- BESOAK
- SABELALDEA

- MANIKURAK
- PEDIKURAK
- BETILE LUZAPENAK
- LIFTING

COSTAMAR ARTEKARITZA

AUTOAK	ISTRIPUAK	KARNET KENTZEA
ETXEA	DENDA	ASISTENTZIA BIDAIAN
ENIZA	ENPRESA	E.P.S.V. PENTSIORAK
BIZITZA	AUTONOMOA	INBERTSIOAK
OSASUNA	ALIRAZPENA	BABES JURIDIKOA
NEKETAK	ERANTZ ZIBILA	KREDITUA ETA BIRORDEA

Urteko Pasalekua: 11 943-120437 DFGV zikla: MS-224
www.costamartekaritzatar.com costamar@comodariacostamar.com

Rivero

688 758 939 Isasi
943 033 649 18

Oinetakoen konponketa



Zure **enpresa-ideia**
garatzeko laguntza-
programa.



Izena emateko epea uztailaren 20ra arte irekita



EIBARKO EKINTZAILTZETA PROGRAMA




EIBAR
Udala | Ayuntamiento

Debegesa
Ekintzailetza Berrikuntza Agentzia



EGITARRAUA



21 DOMEKA

08:00 Untzaga plaza. **SOKAMUTURRA ETA TXOKOLATADA.**

11:00-14:30 auzo ezberdinetatik

EIBARKO V. TXISTU EGUNA Partaideak: Eibar, Ermua, Elgoibar, Soraluze, Gasteiz, Zornotza-ko txistulari taldeak

19:30 Untzaga Plaza

TRIPLETTE zirku-ikuskizuna, Labu&Cris Clownen eskutik.

22 ASTELEHENA

17:00 - 20:00 Untzaga

HAURREN EGUNA. URETAKO PUZGARRIAK.

* Egunean zehar, ferriako atrakzioen **prezioa 1,30 €-koa** izango da.

17:00 - 20:00 Untzaga

FLYBBLEK DRONE SOCCER.

19:30 Untzaga plaza

EKILIKUA, con Tutik Clowns-ekin (Gari, Montxo eta Jose Lontxo).



- KALEFAKZIO INSTALAZIOAK
- SUKALDEAK ETA BAINUAK
- GALDARA ETA BEROGAILUEN INSTALAZIOAK
- BUTANO, PROPANO ETA GAS NATURALAREN INSTALAZIOAK
- AZTERKETA ETA PROIEKTUAK ORDENADOREZ
- AIRE EGOKITUA

T. Anita 12
943 201 930
fonta.amana@gmail.com

LANDARE Estaziño, 4 943 254776
Belleza Sostenible

Ezagutu edertasun kontzientearen kultura berri bat aktibo botaniko % 100 naturalekin



LANDARE
Belleza Sostenible

Secretos del agua

Ondo pasa San Juan jaiak!!!



Su Beroa
Bista Eder, 11
Tel. 943 47 77 79
suberoataberna@gmail.com

albert taberna
Armogin, 1 943 383 177

Ondo pasa!! Jai zoriontsnak!

Arkupe Taberna

Isasi, 2 689 057 149



Goizeko 07:30etik zabalik

ondo pasa Sanjuanak eta Sanpedroak!!

bar manuel (JUANITO)

Urkizu, 5 943 12 16 57

T. Etxebarria, 18 - 1.

CASINO ARTISTA EIBARRES

CASINO ARTISTA EIBARRES

Tfnoa. 943 20 71 90

Ego gain, z/g

BASA

Ongi etorriak zuen etxera!!

943 20 67 53

EGITARRAUA

23 MARTITZENA

10:30 Ospitalea
KALEETAN KANTUZ taldea

11:00 Untzagan hasita
SANJUANETAKO ZORTZIKOA

12:00 Untzaga, kuadrillak bildu
USTEKABEREKIN kalejira

13:00 Estaziño kalea
LIZARRAKO DULTZAINEROekin
kalejira Untzagaraino

13:30 Udaletxea
PREGOIA ETA TXUPINAZOA

13:45 Udaletxea
SARI-BANAKETA
kartel /pegatina lehiaketa

17:30 - 20:30 Bizikleta plaza
UMEENTZAKO PUZGARRIAK
(22:00etan) **TXOKOLATADA**

17:00 - 20:00 Ego Gain
KLARION TAILERRA. San Juan murala

18:00 Untzaga plaza
KUADRILLEN JOLASAK

19:00 Urkizutik hasita, kalejira
BURUHANDI ETA ERRALDOIAK

19:30 Untzaga, kalejira
IRULITXA fanfarrea

22:00 Untzaga
DANBORRADAREN IRTEERA

23:15 Untzaga
DANTZA ESKOLAren emanaldia

23:30 Untzaga
SAN JUAN SUA (...eta kitto!-ren eskutik)
QUEIMADA (As Burgas-en eskutik)

00:00 Untzaga
SAN JUAN KANTUA eta
DANBORRADAREN ALARDEA

00:30 - 04:00 Untzaga **LISKER**

TXUKUNA

**Lentzeria
Mertzeria**

Eulogio Garate,1
943 821 308



EPA EIBAR HHI

MATRIKULAZIOA - Ekainak 22 - 30

ESKAINTZA

- LH ONARRIZKO EZAGUTZAK
 - ULERRIENA
 - IRAKURKETA
 - MANTZARA
 - IDAZMENA
- DBH
- UNIBERTSITATE ETA ZIKLOETARAKO BARRERA
- EUSKARA
- GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT
- INGELESA
- INFORMATIKA

ASTELEHENA: 10:00-13:00
ASTEARTEA: 10:00-13:00 / 15:00-18:00
ASTEAZKENA: 10:00-13:00
OSTEGUNA: 10:00-13:00 / 15:00-18:00
OSTRALA: 10:00-13:00

943 20 88 56 / 673 11 81 81

95ASL 39



amosau,
bazkalde,
meriendau
eta afaldu



LUSAI

@lusairestaurante
747 451 865
ERREBAL
PLAZIA

ZAI-ZOI
EZDOK LABADERUA
KM.0 TABERNA



BITTOR SARASKETA, 1 BEHEA

Kili Kili

GOSARIAK / PINTXOAK / EGUNEKO MENUAK
AFARIAK / MERENDOLAK / OSPAKIZUNAK...

☎ 943 20 24 01 *Ibarkurutze, 12*

TOPA-LEKU
TABERNA
EIBARKO

San Juanak


TOPA EGIN, GAUZA
TXARRAK UXATU ETA UDA
HASIERA OSPATU.



+34 943 55 87 28 EGO-GAIN KALEA 2, EIBAR

KATU
k a l e

Untzaga, 11



Laurel & Hardy

**BARATZE
TABERNA
EIBAR**

Gure sukaldeko
PLATERAK eta
momentuan
egindako
PINTXO
BEREZIAK,
jatorri-ditura
ezberdinetako
ARDOEZ lagunduta,
espazio eta giro
atseginean.

Bidebarrieta 39
URKIZUKO
PARKIAREN ONDOAN



Tel. 943 84 55 03

**FAUSTO
kafetegia**

GOSARIAK
PLATER KOMBINATUAK
PINTXOAK
EGUNETIKOAK

Karmen kalea, 1
608 133 535



Pintxoak / Tortilak
Plater-kombinatuk
Razioak eta
Otaratekoak



UNBE KAFETEGIA
668 59 61 75

ORAIN AFARIAK ERE
EMATEN DITUGU,
BAITA ETXERA ERAMAN
ERE GLIDERGO-REKIN

ASTELEHENETAN TERTZA




**CAFE
EIBAR**

GOSARIAK
PLATER KOMBINATUAK
PINTXOAK
EGUNETIKOAK

J. Etxebarria, 12
608 133 535



EGITARRAUA



24 EGUAZTENA

08:00 Untzaga plaza
SOKAMUTURRA eta **TXOKOLATADA**

09:00 Kalejira
LIZARRAKO DULTZAINEROekin

10:30 Azitaingo ermita, **MEZA** eta
SORBAREN BEDEINKAPENA

11:30 - 14:30 eta **17:30 - 19:30**
Bizikleta Plaza
"ARRELS" jolas-parkea

12:00 Karmengo eliza,
MEZA NAGUSIA

12:45 Toribio Etxebarria,
Eibarko Cielito Musika Bandaren
SAN JUAN KONTZERTUA.

18:00 Zuloagatarren parkea
"DJ XAIBOR" dantzaldia

18:00 Errebal plaza
SAN JUAN CITY SECRETS VI. ginkana

19:00 Urkizutik abiatuta
UMEEN DANBORRADA

19:00 Untzaga Plaza
"CARRUSEL AMBIÑANTE"
Titiritantes kale antzerkia

19:30 Zuloagatarren parkea
TXOKOLATADA UMEENTZAT

20:00 Bizikleta plazatik abiatuta kale-
jira **LATUNA BANDO** fanfarrea

20:30 Untzaga
UMEEN PREGOIA ETA ALARDEA

23:30 Untzaga
SOKA DANTZA (Kezka eta Usartza txistu.)

23:30 Untzaga
SUZKO ERROBERAK

00:15-03:00 Untzaga **JAMAICA SHOW**

Otaola
etorbidea 13,
943 200 883

**Iluminazioa
eta zerbitzua**

Bezero
partikular eta
profesionalekin
lan egiten
dugu

GOIKO LUZ
ARGI DENDAK

San Juan jai bikainenak
opa dizikizute!

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

GORA

SANJUANEK!

Sanjuanek Eibarko
kaleak pizten dituzte.
Zure negozioak ere
piztu ditzake.

Herriko jairik handienak argi uzten du zer den **Eibar biziartzten duena**: jendea, kalea eta tokiko merkataritza. **Errekatxu Berrin** duzu **zure aukera**: **erdigunean dauden lokalak**, zure proiektuaren argia inoiz itzali ez dadin.



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**

EGITARRAUA



25 EGUENA

08:00 Untzaga plaza
SOKAMUTURRA eta **TXOKOLATADA**

09:00 Kalejira
LIZARRAKO DULTZAINEROekin
eta **DIANA**

11:30 Untzaga plaza
XXXI. SAN JUAN MARMITAKO
Lehiaketa

11:30 - 14:30 Fermin Calbeton
EGURREZKO JOLASAK ETA JOLAS
TRADIZIONALAK haur-parkea

17:30 - 20:30 Bizikleta plaza
UMEENTZAKO PUZGARRIAK

18:15 Urkizutik
KALEJIRA Iruñeko Buztintxuri Erral-
doi eta Buruhandiak/ Lizarrako
Dultzaineroak

19:00 Zuloagatarren parkea
**"ALONSO MEZULARIA ETA GALDU-
TAKO GUTUNA"** kale antzerkia

19:30 Untzaga
EUSKAL JAIALDIA (...eta kitto!-k antolatua)

20:00 Zuloagatarren parkea
TXOKOLATADA UMEENTZAT

22:00 Untzaga
JOHN WILLIAMSEN SOINUBANDAK

23:00 Untzaga
SUZKO ERROBERAK



ZELAIA

FRUTAS Y
VERDURAS

*Fruta eta barazki freskoenak
eska-eskarat! Aprobetxat!*

F. Calbeton, 6 Errebal, 4
Tel. 943-048535

Urkizu, 18
943120194

MUGIKA

Harategia - Urdalategia
Carnicería - Charcutería



Baserriko Haragia

Ondo pasa San Juan jaiak!!!



T. Etxebarria, 8

BAR BUENOS AIRES



Untzaga, 5

TXOKO

Giro
alaia
Sanjuanetan!

UNTZAGA PLAZA, 10



GORA GURIDI

SAN
JUAN!



Aguñazpi

Gosariak
egunero

Plater konbinatuak, razioak,
bokatak, hamburgesak

Urkizu, 22
943 128 086

Lanegunetan 07:00etatik Asteburuetan 08:00etatik

ASTELENA ESTAZIÑO GASTROBAR

Estaziño, 7 / Tlf.943 95 44 39

06:30etatik 2:00etik



Gosariak · Ogitartekoak · Hamburgesak
· Kazuelatxoak · Plater konbinatuak ·

JANARIA ETA EDARIAK ERAMATEKO

ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK OSTEGUENERA 06:00/22:00
OSTIRALEAN 06:00/23:00 LARUNBATEAN 07:00/23:00 IGANDEAN 08:00/22:00

- EGUNEKO MENUAK -
943 358138 660 460295

Gastro-Bar ORBELA



Urkizu, 24

EGITARAUA



SAN PEDRO JAIK (KARMEN KALEA)

27 ZAPATUA

16:30 UMEENTZAKO TXOKOLATADA

17:00 UMEENTZAKO JOLASAK

19:00 LEKIMEN MALETA ikuskizuna

28 DOMEKA

12:00 TOKA ETA IGEL TXAPELKETA

18:00 Beheko tokia
TRÍO MEDIANOCHE taldearen musika

19:00 Beheko tokia
bakarrizketa KIKEren eskutik

20:00

BEHEKO TOKIKO Dantza taldea.

21:45

IBAI BERRIAK orkestra

29 ASTELEHENA

12:00 Karmengo eliza
MEZA

13:00 JUR-en musika emanaldia

13:30 Toka eta Igel Txapelketako
SARI BANAKETA

13:30 PISKOLABISA

GALDAREN BERRIKUSPENA
ETA MANTENIMENDUA

— — —

imigas

 imigas.es
943 17 07 00
ERMUA

Kosner / Intergas / ACV / Brava / Tesolin / Fontecal
ZERBITZU TEKNIKOAK

Arregi - Dominguez ARRAINDEGIA

Bidebarrieta, 4
943 201138

Ego-Gain, 9
943 681886



San
Juan
zoriontsuak

Arrain freskoa eta izoztua
Mariskoak / Ondarruko arraina
Enkarguak hartzen ditugu



Ondo pasau!
Sanjuanetan!



Kultö:

Zuloagatarren, 3 943 20 84 39

32. urteurrena
SAN JUAN ZORIONTSUAKI!
HORRETARAKO GAUDE-ETA!

Pintxoen
alardearen
erreinua!

Sei eguneko egitaraua antolatu du JHH-k San Juan jaietarako

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

San Juan jaiak ate joka daukela, azken prestaketetan murgilduta daude Julen Barroja eta Irati Azpilikueta Jaixak Herrixak Herrixandako (JHH) jai-batzordeko kideak. Sei eguneko egitaraua osatu dute aurten, eta antolatzaileen arabera, ez da soilik egutegia betetzeko ariketa bat: urte osoan zehar egindako lanaren eta jai erdua ulertzeko modu jakin baten emaitza da.

Aurtengo egitarauak barixakutik (ekainak 19) San Juan egunera (ekainak 24) arteko jarraikortasuna izango du txosnaguneko espazioan. Egutegiaren antolaketak berak baldintzatu du proposamena, baina jai-batzordeko kideen esanetan, atzean badago helburu argi bat: jai eredu jakin bat indartzea eta ikusgarri egitea.

Jai eredu baten isla

Egitaraua ez da musika edo festa eskaintza hutsa. Horixe nabarmendu nahi izan dute antolatzaileek, txosnaguneak duen funtzioari buruz galdetuta.

"Egitarauan jai-batzordearen abizenak daude: herrikoia, feminista, euskalduna eta parte-hartzailea",

azaldu du Azpilikuetak. Horren arabera, txosnagunea ez da soilik kontzertuetarako edo gaueko festarako espazio bat.

Barojaren hitzetan, helburua da ahalik eta jende anitzenera iristea: "Adin desberdinetako jendearengana heltzen saiatzen gara, eta gure balio horietan berresten dugu jai eredua".

Herriatik antolatutako egitaraua

Egitarauaren atzean ez dago talde itxi bat soilik. Urtean zehar egindako bilera irekien bidez osatu dute programa, herritarren parte-hartzea sustatuz.

"Nahi dugu egitarau herrikoia bat aurrera ateratzea, eta Eibarko gazteei eta herritarrei zer interesatzen zaien jakitea", azaldu du Azpilikuetak.

Barojaren arabera, jai-batzordea ez da egitura bakarra: "Hamar lan-talde eta eragile baino gehiago aritu gara aurten. Jaixak koordinazio taldea badago, baina komunitate oso sendoa ere badugu", azaldu du.

Helburua, azaldu dutenez, jaiak antolatzeko prozesuan gero eta jende gehiagok parte hartzea da.

Sei eguneko egitaraua prestatu du Jaixak Herrixak Herrixandako jai-batzordeak sanjuanetarako.

Programak musika, bertso-saioak, azokak, hitzaldiak eta umeentzako jarduerak uztartzen ditu.

Antolatzaileen arabera, egitarauak jai eredu herrikoia, feminista, euskalduna eta parte-hartzailea islatzen du.



Elkarriketaren bideoa

Egun bakoitza bere nortasunarekin

Aurtengo egitarauak berezitasun bat du: egun bakoitzari izen propioa jarri diote. Tekno Gaba, Etxera Eguna, Lasaitasun Eguna, Señora Eguna, Gazte Eguna eta Umeen Eguna izango dira. Barojaren esanetan, egituraketa horrek laguntzen du egun bakoitzari nortasuna ematen eta publiko desberdinengana iristen: "Ume bat ez da Tekno Gabara etorriko, eta hori ere kontuan hartzen dugu egitaraua diseinatzerakoan".

Umeen Eguna iaz lehen aldiz egin zuten eta aurten berriz errepikatuko dute. "Iaz oso balorazio ona izan zuen, eta ikusi dugu umeek ere txosnaguneko espazioan euren lekua behar dutela", azaldu du.

Txosnagune duin baten aldarria

Jaiak antolatzearekin batera, urtez urte errepikatzen den aldarrikapena ere mahai gainean jarri dute: txosnagunearen egoera.

Udalaren jarrera kritikatu du Barojak. Haren arabera, proposamenak egin arren, ez dute erantzun egokirik jaso: "Infantilizatu egiten gaituzte. 'Ez dugu ikusten' edo 'erabaki politikoa da' moduko erantzunak jasotzen ditugu", salatu du.



Julen Baroja eta Irati Azpilikueta JHH-ko kideak. IRATI ALVAREZ

Hala ere, borroka ez dutela utziko argi utzi du: "Txosnagune duin baten alde lanean jarraituko dugu".

Espazio berriak eta komunitatea

Aurtengo berrikuntzetako bat 'Jo ta ke kuirrak izan arte!' drag tailerra izango da. Ekimen hori herrian sortzen ari den talde transmaribollo baten inguruan eratu da.

Azpilikuetak azaldu duenez, helburua ez da soilik jarduera bat antolatzea: "Gure artean sartzeko eta

aliantzak sortzeko espazioak behar ditugu".

Jaiak herritik eta herriarentzat

San Juanak ate joko direla, herritarrei gonbidapena luzatu diete txosnagunera hurbiltzeko eta egitarauan parte hartzeko. Sei eguneko programarekin, JHH-k jaiak ospakizun hutsetik harago ulertzen dituela azpimarratu du, eta herria egiteko zein komunitatea sendotzeko espazio gisa aldarrikatu ditu.

"Nahi dugu egitarau herrikoi bat aurrera ateratzea, eta Eibarko gazteen eta herritarren interesak kontuan hartzea"

Guría
elektrizitate-zerbitzu integrala

Matxaria, 2 - 7 pabiloia
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 700 895

electricidadguria.com



DEVI OM

YOGA ETA
AYURVEDA ZENTROA

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapia naturalak

☎ 641 512 059

TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)

JHH-EN EGITARAU OSOA

SAN JUANAK EIBARREN 2026

EKAINAK 19: TEKNO GADA
 19:00 TXOSHEK IBERIEKA
 22:00 KONZERTUAK
 GLLS 020 JON MAHAK
 APNAETAL 020 KAVINCHA

EKAINAK 21: LASAITASUN EGUNA
 19:00 BERTSO-SAJOR
 21:30 PROIEKZIOA

EKAINAK 22: SEÑORA EGUNA
 12:00 ATORAKEN HASIERA
 14:30 BAZKARIA
 17:00 KAFE TERTULIA

EKAINAK 24: UMEEN EGUNA
 16:30 KANPSETA BAKARETA ETA TALEARRAK
 19:00 UMEEN BAZKARIA
 16:00 POTX PAILAZO
 17:30 DRAG TALEARRAK
 19:00 NATEARRA ELEKTROAKOAK
 22:00 KONZERTUAK
 JON KOLDO GUDARRAK
 SPABIDEAK
 DJ MORIRI

EKAINAK 20: ETXERA EGUNA
 12:30 IBERIEKA
 13:00 BERTSOJAK
 15:00 ELFAKTASUN BAZKARIA
 17:30 BAZKALOSTE ARUSTIROA
 19:00 NATEARRA ELEKTROAKOAK
 22:00 KONZERTUAK
 LAIMO BELTZAR
 DJ GORRIKOTXU TA LATAKA
 ZEROTAN

EKAINAK 23: GAZTE EGUNA
 12:00 KANPSETA BAKARETA
 14:30 HERRI BAZKARIA
 17:30 JOLASAK
 19:00 KANPOLA DJ BULL
 22:45 SUA
 KONZERTUAK
 CHULEKIA JODEA
 SEDIENTOS DE CUMBRIA
 DJ BEARY

JAIYAK HERRIYAK HERRIYANAKO!

GAUR
 ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA ETXE-ERREFORMA ELEKTRIKO INTEGRALAK. ILUMINAZIOA ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren, 9 Tel. 943 20 62 40 nagore@egaur.com

kili_klik

argazkilaritza fotografia

www.kiliklik.eus

646114443 • kili@kili.klik@gmail.com Indalecio Ojanguren 1 behe

Jai are bereziagoak izango dira omenduentzat

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Herriarentzat eta herritik gauza handiak egin duen jende eta elkarte asko dugu Eibarren eta, hori eskertzeko, herrikideen beroa jasotzen dute data bereziak heltzen direnean. San Juan jaiak izan daitezke omenaldi horiek egiteko momentu aproposak, are gehiago eurek urteurren borobilak betetzen dituztenean.

Ildo horri jarraituz, aurtengo sanjuanetan hainbat talde eta elkarte

omenduko dituzte, izan dultzaineroei harrera egin eta txupinazoa botatzeko orduan, ...eta kitto! Euskara Elkartearekin batera San Juan sua pizteko, danborradako karrozan joateko edota Kezka dantza taldearen soka-dantzan parte hartzeko.

Aurtengo omenduen zerrenda luzea da eta zaila da eurek egindakoa labur azaltzea, baina merezi dute aipamen bat gutxienez. Kirolarekin lotutako zenbait omendu izango di-

tugu aurtengoa. Batetik, mendeurrena egin duen Eibarko Txirrindulari Elkarteari aitortza jasoko du, gure herrian hain errotuta dagoen kirolari eman diona emateagatik. Bigarrenik, beste bi urteurren, hogeita bosgarren kasu hauetan, Urbat waterpolo taldeak eta Eskozia La Brava SD Eibar-en lagunarteak bete dutena. SD Eibar-ekin jarraituz, emakumezkoen taldeak aitortza jasoko du aurtengoa F Ligari eutsi diolako; eta azkenik, Zilarrezko Erreginarekin Kopa irabazi duen Eibar Rugby Taldeak ere herritarren beroa jasoko du jaietan.

Ustekabe fanfarreak ere 25 urte bete ditu eta, sanjuanak musikaz giroteaz gain, pregoia irakurriko dute txupinazoaren aurretik.

Goi Argi emakumeen elkarteak urte gehiago bete ditu, 75 hain zuzen ere, eta bertako kideak nagusien danborradaren karrozan joango dira.

Urteurrenetatik haratago, Atze-gi elkarte eta As Burgas Galiziako Etxea ere omendu nahi zan dituzte hainbat urtetan egindako lanagatik.



suin
suin

ASEGURUAK / EMPLEGU BASEA
Info@suin.eus • 943 20 12 28
EGO-GAIN 14, EIBAR



GARBITEGIA
autozerbitzua

Ego-Gain, 13
ASTELEHENetik IZGANDERA 08:00-22:00
ESKERRIK ASKO bezero guztion!

Tradizioa eta aitortza batuko ditu aurten ere San Juan suak

San Juan jaiek une hunkigarri bat baino gehiago uzten digute eibartarroi, baina horien artean bada bat herritarrok modu berezian bizi duguna: San Juan sua ixotzea eta aurretik egiten den dantza. ...eta kitto! Euskara Elkarteak urteak daramatza San Juan jaietako ekin-tza jendetsuenetakoa antolatzen eta aurten ere ez du kalerik egingo, bezperan, ekainak 23, 23:00etan hasita. Iaz berritasuna izan zuen suak, hain zuzen ere Eibarko Musika Bandak San Juan ereserkia zuzenean jo zuen eta aurten ere gauza bera egingo dute.

Suari hasiera eman aurretik, Eibarko Dantza Eskolako dantzariak ekitaldirako propio prestatutako dantza berezia eskainiko dute, giroa magiaz eta emozioz betez. Aurten, ondo merezitako omenaldia jasoko du jaietan Goi Argi emakume elkarteak eta, aurreratu digutenez, dantzaren bitartez balioan jarri nahiko dute aurten 75 urte bete-tzen dituen elkarte aintzadariaren lana. Dantzaren ondoren, urtero bezala, omenduek izango dute sua pizteko ardura, belaunaldiz belaunaldi transmititu den tradizioari jarraipena emanez. Aurtengo

omenduak honako hauek izango dira: ...eta kitto! Euskara Elkarte-ko lankide ohiak; Eibarko Txirrintul-lari Elkarte (100 urte); Goi Argi (75 urte); Urvat (25 urte); Ustekabe (25 urte); Eskozia la Brava (25 urte); Atzegi; As Burgas Galiziako Etxea; SD Eibar emakumeen taldea; Emakumeen Fugbi Taldea.

Badira hogeita hamabi urte ...eta kitto! Euskara Elkarte San Juan sua antolatzen hasi zela. 1993. urtea zen, lehenengo urte hartan goizaldeko 02:00etan piztu zen sua, danborrada amaïtu eta gero. Hurrengo urtetik aurrera, gaur egungo ordutegian egiten hasi zen, 23:30 bueltan. Aurtengoa, beraz, hogeita hamabigarren sua izango da. Ohitura zaharrak berreskuratu eta baserri inguruan egin ohi den ekin-tza "kalera ekartzeko asmoarekin ekin geniön sua antolatze-ari", diote elkartetik. Sua ixotzeko ardura herriko hainbat elkarte, talde edo norbanakok izaten dute urtero: "Euskararen, herrigintza-ren edota kulturaren alorrean narbarenta direnak gonbidatzen ditugu sua ixotzera, egindako lana eta esfortzua eskertu eta aitortzeko modua da".



Zabala Comercial
OSTALARITZA ARTIKULUEN SALMENTA ETA MUNTATIA

ERAKUSKETA, SALMENTA ETA KONPONKETA
Jose Antonio Gisasola, 6 Tel/Fax. 943 20 88 57
comercialzabala@outlook.com

ELEKTRIZITATEA
Elurki s.a.

INSTALAZIOAK
BOBINATUAK
TRANSFORMADOREAK

Arragueta zeharbidea, 1
Tel. 943 12 05 95 / 72
transfab@electricidadurki.com

Bikini Operazioa Iritsi da

baina...

Zure AHOA?



**Hortz-
azterketa +
DOAN**

200€*

**ONGIETORRI
BONOA**

*Deskontua 2.000 €-tik geroztu
tratamenduaren gainera aplikatuko da.

SONRISALUD

CLÍNICA DENTAL AVANZADA

EIBAR

Toribio Etxebarria, 23

Tel. 943 23 14 14

www.sonrisalud.es



Mendea betetzear dagoela, gaztetuta irtengo da helduen Danborrada

Aste honetan, martitzenean aurkeztu dituzte sanjuanetako bi danborradak antolatzaileek, Izarra elkarte gastronomikoan egindako afari-meriendan. Eibarko Danborradako ordezkariak adierazi dutenez, datorren urtean 100 urte beteko ditu eta, hori dela eta, zerbait berezia egitea gustatuko litzaiekeela aurreratu dute.

Testua **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**



Helduen danborrada, betiko moduan, ekainaren 23an, San Juan bezperan irtengo da eta, azken urteotan bezala, 22:00etan abiatuko da, Untzagatik. Urkizurainoko ibilbidea beteko du, baina aurten, Arraguetako lanak direla eta, Bidebarrietatik igoko dira. Bestela, ez da aldaketarik egongo ibilbidean. Untzagara buelta, berriz, gauerdirako egitea aurreikusi dute, Diana

eta San Juan Himnoa jo eta gero, bertan amaitzeko.

Aurkezpenean esandakoaren arabera, aspaldiko parte-hartzerik handiena izango du aurten helduen danborradak: 140 bat gaztekizena eman dute eta, horri esker, 300 bat lagunek hartuko dute parte, Ustekabe txarangaren laguntzarekin, betiko doinuak eskaintzeko. Konpainia edo talde ezberdinetan banatuta arituko dira: Gastado-





Helduen danborradan 300 bat lagunek hartuko dute parte, urteroko konpainia ezberdinetan banatuta. Umeen danborradan, baina, jaitsiera nabarmena egon da eta aurten ehun umek hartuko dute parte. SILBIA HERNANDEZ.

reak, Tradizionala, Betikuak, Es-koziarrak, San Andres, Amuategi eta Gazteak.

Goi Argi elkartekoak karrozan

Eibarko Danborradaren karrozan, aurten 75 urte bete dituen Goi Argi emakumeen elkartekoak joango dira, omendu gisa. Karrozaren apainketa-lanak Eibarko Udal Margo Eskolako irakasleek, Ana Ferrerrek eta Leire Kareagak egin

dute, Udal brigadako langileekin batera. Eta Danborradaren pin-a Leire Kareagak diseinatu du, hori ere Goi Argi elkartearen omenez.

Umeen Danborrada Errebalen hasiko da

Haurren danborradan, berriz, kontrakoa ari da gertatzen: geroz eta ume gutxiagok ematen dute izena. Horrela, aurten ehun ume inguruk hartuko dute parte, Ustekabe

txarangak lagunduta. Ekainaren 24an, San Juan egunean irtengo dira, 19:00etan, baina, azken orduko erabaki bat tarteko, ez dira Urkizutik abiatuko, Errebaletik baino: “Egun horretan bero handia egiten duela kontuan hartuta, eta aurten entseguak lehen aldiz Errebalen egin direnez, bertatik hasiko gara, horrela haurrentzat ibilbidea horren luzea ez egiteko, eta bero larregi ez pasatzeko”.




LAMINAZIOZ EGINIKO ZEHAZTASUN HANDIKO HARIAK BULOI ETA TORLOJUAK HUSILO ETA AZKONAK



Erisono Industrialdea, 3
20600 Eibar
tlf. 943 121 308
943 121 312
www.rlapeyra.com

Egun hauetan musikak ez du etenik izango



Gaurtik aurrera, festa giroan murgilduko da Eibar eta, jaia muskarik gabe jaia ez denez, doinu ezberdinez gozatzeko aukera izango dugu eguenera arte. Txosnetako eskaintza aparte lagata (18-22 orrietan duzue informazio gehiago), hurrengo lerroetan aurkituko dituzue sanjuanetako proposamen musikalak.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**



Kontzertuekin hasiko dugu zerrenda eta ez dugu asko itxaron beharko, gaur bertan saio bikoitza edukiko baitugu. 21:30etik aurrera, Untzagan, Maialen Ibarra igoko da lehenik oholtzara eta Kaparrak taldea gero. Ibarra pop eta pop-rock doinuen artean mugitzen da eta '16 segundu' izeneko diskoa kaleratu zuen iaz kolaborazio esanguratsuekin: Kirmen Uribe, Eider Saez eta Mon Dvy. Kaparrak, ostera, beste kontu bat da. Aretxabaleako taldeak 'runba abstraktua' lantzen du, eurek diotenez, eta Euskal Herria konkistatu dute Los Delincuentes taldearen izpiritu 'garrapateroa' zabalduz (hortik euren izena).

Horien ondoren, 00:45etik aurrera, Sobak antolatuta, Emeka rap abeslari eibartarrak kontzertua eskainiko du (artista gonbidatuekin) eta Unai Santos, Oru eta Txima DJ-ek emango diote amaiera gauari (edo ongietorria egunari, 05.00 inguruan amaituko da-eta).

Bihar, iluntzeko kontzertuen aurretik, sanjuanetako ikurreta-ko bat den Africa Baj Yay taldearen erritmo dantzagarriaz gozatu ahal izango dugu, 19:00etatik aurrera, herrian zehar egingo duten kalejiran. Ondoren, sanjuanetako plater nagusia etorriko da. 21:30etik aurrera, Jonkass zornotzarrak bertuko du eszenatokia lehenik. Bizkaitarra estilo aniztetan mugitzen da, dantzagarriak guzti-guztiak. Eta

Fisioterapeuta
18 zenbakiko
Kolegiatua

**FISIOTERAPIA
GUEREÑU**

EIBARKO TXIKITO, 12
BEHEA ESKUMA
Tf: 943 12 14 80

Bidebarrieta, 8

Twins

tel. 943 05 60 82 • www.twinseibar.com



Leire Martinez eta Jonkass igoko dira Untzagako oholtzara bihar gauean.



bere atzetik, aurtengo izarra, Leire Martinez. Errenteriarak La Oreja De Van Gogh taldean egin du bere ibilbidearen zatirik handiena, baina 2024an, 16 urte eta gero, taldetik aterazen eta bakarka dihardu orain, bere ahotsak urradurarik ez duela erakutsiz. Gauarekin amaitzeko, San Juan DJ Fest delakoa antolatatu dute 00:45etik aurrera.

Hori guztia jaien aurreko eskaintza besterik ez da, beraz, pentsa zer

etorri daitekeen gero. Hori bai, jaien egun ofizialetan, kontzertu gutxi, baina kalitate handikoak eta, esan beharra dago, mitikoak ere. Izan ere, zer izango litzateke San Juan bezperako gau bat Liskerren berbenarik gabe? Ba bertan izango dira 00:30etik 04:00etara Untzaga plazan. Eta Jainaga eta Narbaizarik gabe, zer? Ba eurak ere jaietan izango ditugu, hilaren 24an, 22:00etan, Untzagan ere. Baina ez ahaztu Ja-

maica Show, hainbat urteetan mila-ka doinu ekarri dizkigun taldea! Ba eurak ere 24an izango dira gurean, 01:15etik 03:00etara.

Musika herri osora

Kontzertuekin amaitzeko, Eibarko Musika Bandari buruz egin behar dugu berba. Izan ere, bi saio berezi eskainiko ditu jaietan (23ko suan San Juan ereserkia jotzeaz gain), bata hilaren 24an eta bestea



Kontzertuak, DJ-ak, kalejira, erromeriak, berbenak... Denetarik egongo da egun hauetan musikari dagokionez



25ean, 24ko kontzertua 12:45ean hasiko da, Toribio Etxebarria kalean ("eguraldi txarra egingo balu, udaletxeko arkupeetan, eta txarra bero sargoria ere izango litzateke", Andoni Vazquez zuzendariak esan digunez), eta ohikoa izaten den San Juan Kontzertua izango da. 25ekoak, berriz, beste kutsu bat izango du, zinematografikoa. Izan ere, 22:00etatik aurrera, John Williams konpositorearen soinu-banden kontzertua eman go du Untzagan, pelikulen irudiek lagunduta.

Herriko kaleetan zehar ibiliko den Africa Baj Yay aipatu dugu lehen, baina ez da kalejirak egingo dituen talde bakarra. Hilaren 23an, txupinazoaren aurretik, Usartza Txistulari Bandak Sanjuanetako Zortzikoa eskainiko du 11:00etatik aurrera Untzagatik hasita; eta 12:00etan, Ustekabe herriko kuadrillekin batera jaitziko da Urkizura, gero dultzaineroei ongietorria egiteko. Baina ez da Ustekaberen saio bakarra izango, 15:30etik aurrera ere kalejira egingo baitu, eta nagusien eta umeen danborradan ere egongo da.

Ustekabez gain, Irulitxa Ermuko fanfarrea ere kalejiran izango dugu hilaren 23an, 19:30etik aurrera, Untzagatik irtenda. Eta hurrengo egunean, 20:00etan, Latuna Bando eibartarrak ibiliko dira kalejiran Bizikleta Plazatik abiatuta.

Gaupasa egin ondoren indarra dutenek (eta iaz horrelako asko zedula ikusi genuen) edo goiz altxatzen direnek, Lizarrako Dultzaineroen atzetik kalejiran ibiltzeko aukera izango dute. Horrela, 09:00etan irtengo dira kalera hilaren 24an eta 25ean.



ARGITAGARBI

KOMUNITATEEN KUDEAKETA INTEGRALA

Bidebarrieta Kalea, 24-1 esk
 Tf. 943.702.603 / 652 37 92 38
 argitagarbi@manizkodes@gmail.com



tracklan

Eibar
 Tel.: 943 20 12 28
 eibar@tracklan.es

Ego Gain, 14-16
 www.tracklan.es



Eibarko
EAJ-PNV-k
San Juan jai
ZORIONTSUAK
opa dizkizue!



ej
pnv



 **aldaz**
hartz kliniak - clinicas dentales

943 366 377
Lasarte-Oria · Elgoibar · Tolosa

**TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK
ETA AZKENENGO TEKNOLOGIA
ZURE ESKURA**

R.P.S. 128/24

30 urte zurekin
1995etik Gipuzkoako
familien aho-osasuna
zaintzen.

“Asko erabiltzen da post-punk berba, baina gehiago ikusten dut post-a punk-a baino”

ANTTON CARRETERO • Chulería, Joder!



Eszenatoki gainean dena ematera datoz Chulería, Joder! taldekoak. Ez dakite beste modu batera egiten, horrela sentitzen dute. Beraz, ekainaren 23an, suaren ondoren, txosnak energia biziz beteko dira punk talde honen doinuekin eta jarrerarekin. Zintzoak dira eszenatoki gainean, tranpa gabe jotzen dute, bene-benetan dutena azaleraziz. Eta asko da hori!

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Gelditu barik dabil Chulería, Joder! taldea eta indartsu dator Eibarrera. Taldekide gehienak Ezkerraldekoak dira, baina aramaioarra dugu Antton Carretero gitarrak jolea. Telefonoaren beste aldetik erantzun digu, sanjuanetakoaz berba egiteko.

Talde moduan lehen aldia da zuentzat, baina bestela ere izan zarete Eibarko San Juan jaietan?

Ez, ez dut uste behintzat. Aramaiokoa naiz, baina taldeko beste kideak Portugalete eta Santurtzikoak dira eta Eibar ez dute oso eskura. Beraz, toki berri bat eza-gutzeko aukera izango da.

Zuen zuzenekoak energia handikoak izaten dira. Jai-giroan, are gehiago?

Nahiko antzera jokatzeko dugu beti. Gure zuzenekoak benetakoak izaten dira, gidoirik gabe eta ezer pentsatu gabe. Abestien ordena zein izango den izaten dugu pentsatuta bakarrik.

Orduan, alde handia egoten da kontzertu batetik bestera? Adibidez, publikoaren jarreraren arabera, zuek duzuen egunaren arabera...

Publikoa motibatuta badago, beti izaten da beste gauza bat; baina publikoa aspertuta badago, arrazoi gehiago dugu gu geu motibatzeke eta dena emateko.

Azkenean, hartu-emana egon behar da hor, ala?

Bai, eta hartu-eman hori ez baldin badago, ‘destroy’ moduan jartzen gara gehiago.

Inoiz ez duzue pott egiten?

Ezta gutxiago ere!

PUBLI RESA
osagintza pertsonalizatua

www.publiresa.com
 943 701 497 / 687 879 667

merchandising
 serigrafia
 lanerako erropa

Armagin 3-5 beheak
 publiresa@publiresa.com

Gestoria Alonso

San Agustín, 5 - BEHEA

618 25 93 44
 943 20 20 17

mcalonsoeibar@gestores.net



Alda (baxua), Antton (gitarra), Miryam (bateria) eta Iraxte (ahotsa) dira Chulería, Joder! taldeko kideak CHULERIAJODER

Punkak irudi kaotikoa du, baina abestiak sortu behar dira, diskoak grabatu... Hor nolako lanketa dago?

Lanketa, lanketa... Egiten duguna ez nuke lantzat hartuko. Ideia batzuetatik hasita, abestiei forma eman eta, zerbait irten denean, “nahiko punka da” esaten dugu eta kitto. Inoiz ez dugu pentsatu izan: “Nola egiten da punk abesti bat?”.

Eta disko bat planteatzeko orduan, egin ahala sortzen duzue?

Ero-eroan! Ez dugu zera pentsatzen: “Orain ez dakit nolako abesti bat egin behar da diskoa ez dakit zela-koa izateko”. Abesti guztiak ‘kañeroak’ irteten badira, diskoa oso ‘kañeroa’ irtengo da. Abesti lasaiago bat irteten bazaigu eta beste bat poperoagoa, ba kitto. Irteten dena irteten zaigu eta ez dago besterik. Abestiak

konposatzeko orduan ez dugu trebetasun nahikoa gero kantak baztertzen ibiltzen aritzeko edo aukeraketak egiteko. Nahiko justu gabiltza.

Orain dela hamarkada batzuk esan zen punka hilda zegoela (“punk is dead”), baina punka entzuten jarraitzen dugu. Nola ikusten duzu gai hori?

Mikroklimak daude. Adibidez, Ezkerraldean punk tradizionalagoa egiten duten taldeak ikusi ditzakezu gehiago eta, bestetik, ‘modernitoagoak’ ere badaude, bibotedun hauek, adidas txandalarekin jotzen dutenak. Agian abesti ‘kañeroak’ dituzte, baina ez dira punk tradizionalaren prototipoa. Orduan, popurri arraro xamarra dago. Askok erabiltzen da post-punk berba, baina gehiago ikusten dut post-a punk-a baino.

PODOLOGOA
Maidier Lopez Etxeberria
65 Kolegiatu zbkia.
Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

C & J
CERRAJEROS
665 590 119
Tel. 943 107 770 Juan Gisasaola, 2 EIBAR
www.cjseguridad.com
cjcerrajeros@gmail.com
Tel. 943 132 514 Araba, 26 ZARAUTZ

“Inoiz ez dugu joko moralki bat egiten ez dugun toki batean”

Zuen taldeko kide gehienak Ezkerraldekoak dira, beraz, punk tradizionalerantz jotzen duzue?

Hori da, tradizionalagoa. Tu-pa-tu-pa-tu-pa-tu-pa, estribilloa, tun-tun, eta kitto. Eta agian gu ez gara hain tradizionalak. Mugitzen zaren tokiaren arabera, batzuentzat punkiegiak gara eta beste batzuentzat gutxiegi.


Nola bizi duzue musika? Nolako izaera du taldeak?

Ahalik eta gehien jotzea da nahi duguna. Orain arte, urtean 50 kontzertutik gora jo ditugu, nahikoa. Saiaitzen gara toki batzuetan jotzen... Hau da, ez dugu BBK Liven joko, ezta 100 euro edo bokadillo batengatik ere. Hasieran agian bai, baina orain proposamen gehiago ditugunez, proposamen erakargarriagoak hartzen ditugu, beti ere nazkagarriak izan gabe.

Azken urtean demaseko oihartzuna lortu duzue. Nola kudeatzen duzue orain aipatu duzun hori?

Hor gabiltza, ez dakigu oso ondo nola egin eta momenturen batean konfunditu egin ahal gara, baina diru asko ematen badigute ere, inoiz ez dugu joko moralki bat egiten ez dugun toki batean.

Zuen kontzertuaren aurretik San Juan sua egingo da txosnetan. Zer botako zenukete sutara?



Munduan gertatzen ari diren mobida global guzti horiek. Ez dakit nola esan. Ez dut esango gerrak eta horrelako gauzak, baina bai miseria guztia eta betikoen erruz herriak sufritzen duen guztia. Bestetik, gure zorigaitz pertsonalak ere botako nituzke. Kantuetan ez dugu politikaz hainbeste hitz egiten, gure gauza pertsonalez aritzen gara askotan, gure kaken, ezinegonen, depresioen eta horien inguruan. Horiek guztiak sutara!



Telekomunikazio
Instalaziorako
Enpresa
1305 zka.

TB seinalea jasotzeko
antena-instalazio profesionalak
Satelite bidezko TB / TB digitala
Teledistribuzioak

Konponketak eta mantenimendua



www.trinmer.com

Ego-Gain, 2 Bac
Tel: 943 127 350

Euskal Jaialdiaren 31. edizioak herri kirolaririk onenak bilduko ditu Untzagan



Eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta, Euskal Jaialdiaren 31. edizioa egingo da ekainaren 25ean, San Juan Txiki egunean, 19:30ean, Untzaga plazan. Urte luzez herriko egitarauan ezinbesteko hitzordua izan den herri-kirol erakustaldiak maila handiko ikuskizuna eskainiko du aurten ere, Euskal Herriko kirolaririk onenetakoak ekarriko ditu-eta.

Kalerik egin gabe urtero gure artean izaten den Ernesto Ezpeleta "Bihurri"-k Hodei bere semearekin eta Goizeder Beltza eta Mikel Agirrerekin osatuko du aizkolarien laukotea; baina izango dira aizkolari gazteagoak ere, Aratzek

(12 urte) eta Enarak (8 urte), Goizeder Beltzaren seme-alabek, aizkora-erakustaldia egingo baitute. Txinga eta ingudearekin Ainhoa Larrinoak jardungo du aurten berriro; harri-jasotze lanetan, berriz, Sara Aberasturi arabarra izango da estreinakoz; eta, azkenik, Iparraldeko jokoetan nahiz trontzan Karlos Aretxabaletak eta Mikel Agirrek euren maisutasuna erakutsiko dute. Urtero moduan, lehiaketak edo erronkak izango du jaialdiaren pisurik handiena. Bi talde osatuko dituzte, modalitate guztietako ordezkariekin, eta euren arten jokatuiko dute XXXI. Euskal Jaialdiaren txapela zeinek eskuratu.

...eta kitto! Euskara Elkarteak 1994. urtean antolatu zuen lehenengoz Sanjuanetako Euskal Jaialdia eta, orduetik, Eibarko Euskal Jokoak taldekoekin elkarlanean, urtero eutsi dio tradizioari (bi urteko etenaldia kenduta, pandemiaren eraginez ezin izan zelako egin 2020an eta 2021ean). Eguna ere noizbaiten aldatu behar izan badute ere, San Juan Txikin du urteroko hitzordua herrikiroletako zaletuekin. Arratsalde polita eskainiko digute oraingoan ere.

...eta kitto! Euskara Elkarteak eskerrak eman nahi dizkio Juanito gimnasioari kirolariak arropaz aldatu eta ondo merezitako dutxa hartzeko euren instalazioak lagatzearren.



200 lagunek sokamuturraren itzulera salatu dute

San Juan jaietako egitarauan hiru sokamutur sartzeko erabakia bertan behera uzteko eskatu diote Udalari; antolatzaileen arabera, ia 1.000 herritarrek eman diote babesa ekimenari.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Eibarko udaletxearen aurrean elkartu ziren martitzen arratsaldean 200 lagun inguru, San Juan jaietako egitarauan sokamuturra berriz sartzeko erabakiaren aurka protesta egiteko. Duela hamar urte utzi zitzaion San Juanetan enbolatuak egiteari, zezen-plazaren egoera txarra zela eta, herritarren segurtasuna bermatzeko asmoz. Aurten, ordea, sokamuturra berriz izango da Untzaga plazan, ekainaren 21ean, 24an eta 25ean.

Hainbat eragilek, 'Sokamuturra ez Eibar' herri-ekimenaren baitan deituriko elkarretaratzean azaldu zuten, Eibarko zezen-plazaren itxiera ez zen kasualitatea izan, urteetako herri-mobilizazioaren eta sentsibilizazio lanaren ondorio baizik. Prozesu horren emaitza gisa, zezenketak eta tauromakiarekin lotutako jarduerak jai-egitarautik kanpo geratu zirela nabarmendu zuten, tartean San Juan jaietako enbolatuak.

Aurten, ordea, alkateak San Juan jaietako programan hiru sokamutur sartzeko erabaki duela salatu zuten, behar bezalako adostasun sozial eta politikorik gabe. Ekimenaren arabera, erabakia justifikatzeko erabilitako argudioen artean dago gazteek urteetan egindako eskaerari erantzuten diola esatea, nahiz eta, euren esanetan, ez den zehaztu zein gaztek, zein espaziotan eta zein bidetatik egin duten eskaera hori.

Antolatzaileek nabarmendu zuten azken asteetan ia 1.000 eibartarrek agertu dutela kontrako jarrera, sinadura-bilketen eta herri-ekimenen

L

LARRAGEST

AGENCIA INMOBILIARIA

697 258 966 697 258 977

F. Calbeton

22-24

Eibarko zure

konfidantzazko

Inmobiliaria



bidez. Horrenbestez, udal gobernuari leporatu zioten herritarren zati handi baten iritzia aintzat ez hartzea.

Euren ustez, gainera, erabakia ez da gertakari isolatua. Duela urtebete Udalak Pedrucho zezenzaleen elkarteari lokal bat laga ziela gogorarazi zuten, eta neurri hori zein egungo erabakia norabide berean kokatu zituzten, hau da, tauromakia Eibarren berriz sustatzeko estrategiaren baitan.

Halaber, udalaren norabide horrek Eneko Andueza-ren izen-abizenak dituela adierazi zuten, haren jarrerara publikoak zezenketen aldekoak izan direla argudiatuta. Testuinguru horretan, Eusko Legebiltzarrean adingabeei zezen-ikuskizunetan parte hartzea ahalbidetzeko tramitazioarekin lotu zuten egungo eztabaida.

Gaztetxearen egoerari ere egin zioten erreferentzia. Hamabi urtez gazteek sortu, eraiki eta eutsi dioten proiektu komunitarioa desagertu izana salatu zuten, eta azpimarratu zuten aisialdi eta herri-antolakuntzarako espazioak galtzen diren bitartean halako jarduerak berriz jai-programan sartzea kontraesankorra dela.

Animalien ongizatea ere jarri zuten erdigunean. So-

“Eibarko zezen-plazaren itxiera ez zen kasualitatea izan, urteetako herri-mobilizazioaren eta sentsibilizazio lanaren ondorio baizik”

kamuturrean erabiltzen diren animaliek sufrimendu fisiko eta psikologikoa pairatzen dutela adierazi zuten, eta jarduera horiek beldurra eta estresa aisialdi moduan normalizatzen dituztela kritikatu zuten. Era berean, NBeko Haurren Eskubideen Batzordearen gomendioak eta 2030 Agendaren printzipioak gogora ekarri zituzten.

Ekimenaren arabera, jarduera horien atzean interes ekonomikoak ere badaude. Horrez gain, sokamuturrak 16.000 euro inguruko kostua izan dezakeela adierazi



BIC GIPUZKOA
UP! EUSKADI

Edificio Tekniker

Iñaki Goenaga kalea, 5. EIBAR

tel.: 943 00 09 99

www.bicgipuzkoa.eus

bic@bicgipuzkoa.eus



zuten, eta diru hori bestelako kultura eta aisialdi eskaintzetara bidera litekeela defendatu zuten.

Azkenik, egueneko ezohiko osoko bilkuraren aurretik, mozioa babesteko eskatu zieten udal talde guztiei. Hala ere, Udalak bere horretan eusten dio sokamuturra berreskuratzeko erabakiari.

Sokamuturraren aldeko jarrera eta erakundeen iritzia

Bestalde, sokamuturraren aldeko jarrera ere agertu da herrian. Sokamuturra Bai Eibar izenpean, hainbat herritarrek Udalarari helarazi diote sokamuturra berriz antolatzearen aldeko babesa. Eguen honetan elkarretaratzea egin dute Untzaga plazan, 18:30ean.

Bestalde, Pradales lehendakariak ere gaia hizpide izan du. Martitzenean ETB1i eskainitako elkarrizke-

“Azken asteetan ia 1.000 eibartarrek agertu dute kontrako jarrera, sinadura-bilketen eta herri-ekimenen bidez”

tan adierazi zuen sokamuturra “gure paisaiaren parte” izan dela, eta animalien ongizatea eta herri-ohiturak uztartu beharra dagoela nabarmendu zuen. Dioenez, “oreka bilatu behar da” tradizioen eta animalien babesaren artean.



M^a Mercedes Zamacola Ganchegui

1. URTEURRENA
2025/06/28

Beti izango zaitugu gogoan



- ZURE FAMILIA -



FUNEUSKADI
Grupo Anónima



FUNERARIA MUGICA
Funeraria



TANATORIO EIBAR



TANATORIO ERRETORIO
ERRETOIO

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Elgoibar:
Kiziloi, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermueko bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

...eta kitto! 2026 | 06 | 19



Ikus-entzunezkoen Asteaz gozatzeko aukera ederra

Ekainaren 30ean *Komite anti-nuklearra Eibarren*, Emi Aiastui Garciaoren ordu erdiko lana eman-go dute, 19:00etan Arrate Kultur Elkartean. Garai hartan egindako hainbat ekintza grabatu zituen Emiliok. Urte luzez gordeta izan dituen grabazio horiek digitalizatu ditu, eta haiei esker Lemoizko zentral nuklearraren aurkako mugimenduaren eta garai hartako mobilizazioen irudiak berreskuratu dira.

Uztailaren 1ean bi film labur emango dituzte, 22:00etatik aurrera, San Andres elizaren klaustroan. Hasteko, *Gure bazter bazterrak*, Dani Astarloa Aierberen 15 minutuko lana emango dute. Egilearen berbetan, “bizi naizen herrialdearen hondatzea salatzen da, baina, batez ere, iruditeria idealizatu hori indartzen duten irudien nagusitasunaren aurrean, argazkiok, inguruneari begiratzeko beste ildo

Arrate Kultur Elkartek antolatuta, aurten ere ikus-entzunezkoekin gozatzeko aukera izango dugu. Ekainaren 30ean, eta uztailaren 1ean eta 2an izango dira emankizunak, lehena Arrate Kultur Elkartean lokaletan, eta gainontzekoak San Andres parrokiako klaustroan. Beti bezala, ez da sarrerarik ordainduko.

bat eman nahi dute”. Jarraian, *Desagertzen diren hitzen lexikoa*, Iraixe Jaioren 11 minutuko lana ikusi ahalko da. Memoria galtzen hasi zenean, egilearen aitak bere pentsamendu eta oroitzapenak erregistratzeari ekin zion, eta hori erakusten du lanak.

Azken egunean, uztailaren 2an, 20:00etan hasiko da *1:1 Eskala* ikus-kizuna, Olatz Salvador Zaldua eta Alaia Martin Etxebesteren eskutik (hau ere elizako klaustroan izango da). Erruduntasunaz arituko dira lan honetan. Biek elkarrekin, ihesbide bat bilatu dute musikan eta hitzetan, eta bere neurriak ekarri nahi dute errua.

BULEBÚ
Jatetxea

Tel 843 69 90 11 San Juan kalea. 19

Ondo

Waterloo

Julian Etxeberria, 4

pasa

SUPER TROUPER

Plaza Barria, 6

jaiak!



Emakume eta militante langile, eskuzabal eta nekazaria. Ezkertiarra, abertzalea eta feminista.

Gugan jarraituko dute zure indar, bizi-gogo eta konpromisoak.

Eskerrik asko herria egiteagatik
Mila Arizmendi Etxaniz




Mila Arizmendi Etxaniz



Mila, gure artetik joan zara, baina zure arrastoa gure artean gelditzen da. Herria kemenez eta gogoz egiten aritu zara; ikuspegi feminista, ezkertiarra eta sozialista bidelagun. Eskerrik asko egindako guztiagatik. Agur eta ohore, Mila.

- Eibarko EH Bildu -



Mila Arizmendi Etxaniz

2026/06/13

Eskerrik asko Ikastolagatik egindako guztiagatik.




Ikastolako komunitate osoa



Mila Arizmendi Etxaniz

2026/06/13

Agur, Mila! Bazkidea izan zara gure elkartean, eta betirako geratu zara gure bihotzetan!



GOI-ARGI elkarteko zure lagunak



Mila Arizmendi Etxaniz

2026/06/13

“Zenbat barre, alaitasun eta goxotasun partekatu dogun zurekin. Asko maite zaitugu, Mila”




ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

Urkizu, 11 - solainuartea
publizitatea@etakitto.eus
688 62 76 89

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **JON!**
Gaur, hillaren 19xan, urtetxo bat betetzen dozu-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, bereziki, Danelen partez.



Zorionak **MAREN!**
Astelehenian, hillak 22, 9 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Nile eta Juleren partez.



Zorionak **ALES!**
Hilan 17xan 30 urte bete zenduaz. Besarkada haundi bat zure kuadrillan partez!



Zorionak **KATIA!**
Ekainaren 20xan 10 urte beteko dozuz-eta. Pintto, Kira eta famelixa osuaren partez.



Zorionak **IRENI!**
Atzo 12 urte bete zenduazuen! Primerako neska zara eta oso harro gaoz zutaz! Asko maite zaittugu. Eder, aita eta ama.



Zorionak aitxitxa **JUAN**, hillaren 23an urtiak egingo dozuz-eta. Jarraittu hain jatorra eta alaia izaten! Danel, Aner, Noa eta Luka.



Zorionak **LUKA!**
Hillaren 24an 9 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Noa arreba eta Danel eta Aner lehengusuen partez.



Zorionak **ARENE!**
Ekainaren 16xan 9 urte bete dozuz-eta. Zoragarria zara, jarraitu horrela!!! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak **UXUE!**
Famelixa guztian partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak **AIORA!**
11 urte haundi! Segi bizitzaz gozatzentzen!!!



Zorionak **JARE!**
Zure lehenengo urtetxua beteta! Asko maite zaittugu.



Zorionak **GORKA!**
Gaur 9 urte betetzen dozuz-eta. Gozatu zure egunaz! Asko maite zaittugu, txapeldun! Etxekuak.



Zorionak **IRUNE!**
Ekainaren 22xan 10 urte beteko dozuz-eta. Gure etxeko printzesa, beti alai eta pozik! Etxeko guztiok asko maite zaitugu.

Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Eteak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan
- 3.3. Konpartitzeko

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Deba. Emakume nagusia pisu bila uztaila edo abuzturako. 665 72 9417.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- 22 metro koadroko trastelekua saltzen da. Kanpoaldera ematen duen leihoa du, Legarre dorrean. 626 71 98 02.

3.2. Errentan

- Garajea alokairuan hartuko nuke. Urkizu-Carmen inguruan. 616181118.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, asteburuetan, gauean, ospitalean edota orduka. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna bezala. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 631888449.
- Neska eskaintzen da udan umeak zaintzeko edota ingelesezko klasea intentsiboak emateko (C1 tituluarekin). 632181502.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Goizez. 633597550.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile izateko. Esperientziarekin eta tituluarekin. 602893569.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, interna bezala, orduka, gauez. Ziurtagiri

soziosanitarioa eta erreferentziak. 632292662.

- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. 640050714.
- Gizona eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko edo gidari lanak egiteko. Esperientziaduna. 651062393.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, edota garbiketa lanak egiteko. 614612521.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Edozein ordu eta egunetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 643579693.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Ziurtagiri soziosanitarioa. 15:00etatik aurrera. 614087578.

4.2. Langile bila

- Odontologo orokorra bilatzen dugu astean jardunaldi bat edo gehiagotan lan egiteko Ermuko hortz klinika batean. Lan-giro ona eta ordutegi malgua. Bidali CV niklinika@gmail.com emailera.
- Banatzaileak behar dira ostiraletan ...eta kitto! aldizkaria banatzeko (6 ordu). 11:00-18:00 bitartean, Urte osoko kontratua. Tel. 943200918 / banaketa@etakitto.eus
- Esperientzia duen eta ikasten jarraitzeko grina duen ilea-paintzailea behar da. Bidali CVa peluqueriaieider3004@gmail.com helbidera.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Euskaraz eta ingelesez C1 duen unibertitate ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko edo klase partikularrak emateko 688605585.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

- Mendiko bizikleta elektrikoa salgai. Suspentsio bikoitzarekin eta egoera onean. 1.000 €. 646293311.

6.4. Bestelakoak

- Dokumentu pertsonalak aurkitu dira Coliseo inguruetan. Berreskuratzeko deitu hona 690311429.

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA

Matrikula:
Irailaren 1etik 16ra

On-line
IKASGUNEA
plataformaren bitartez



DEUTSCH - ENGLISH - EUSKARA - FRANÇAIS

Ikastaro
ERDIPRESENTZIALAK:
egun bat eskolan +
lan pertsonala
MOODLE plataforman

ARRASATEN eta
AZKOITIAN gela
desplazatuak

IKASTURTE OSOAREN PREZIOA: 72,36€

*Agiri ofiziala
eskura ezazu!*

Informazio gehiago:
Otaola hiribidea 29 EIBAR
eoieibarheo@gmail.com
943899275





EIBAR

HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

10.
URTEURRENA

*Eskerrik asko
gure paziente
guztiei*



📍 San Agustin Kalea, 4 behea ezkerre (Eibar) ☎ 943 537 076 · 688 884 808

🌐 www.eibarclinicadental.com

R.P.S. 79/25 MAITANE B. INIGUEZ - ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA